

garabide erabepiq 2020

EUS

lankidetzan hizkuntzak biziberritzen

AURKIBIDEA

1. Aurkezpena.....	04
2. Aitzinsolasa.....	07
3. Lehen lerro estrategikoa: finkatze instituzionala.....	08
3.1. Koordinatzaile berria: Eñaut Agirre.....	10
3.2. Komunikazioa.....	11
3.3. Genero Berdintasunaren Aldeko Antolaketa Aldaketa prozesua.....	12
4. Bigarren lerro estrategikoa: formazioa eta aholkularitza.....	14
4.1. On-line ikastaroa.....	16
4.2. Ernamuintxoia.....	18
4.3. Tosepan: ezohiko urtea.....	19
4.4. Nasa herria: zailtasun gainetik, aurrera!.....	20
4.5. Kitxuaren Biziberritze Estrategietako Lehen Nazioarteko Ikastaroa Ekuadorren.....	21
4.6. Balio komunitarioak sendabelar.....	22
4.7. Mapuguzunaren digitalizazioa.....	23
4.8. Guatemalako maia hizkuntzetan Wikipedia sortzen.....	24
4.9. Amazighak iparraldetik datoz.....	25
5. Hirugarren lerro estrategikoa: aktibazio soziala Euskal Herrian.....	26
5.1. "Hizkuntza Indigenak Ama Lurra Zaintzen" liburuaren argitalpena.....	28
5.2. Eusko Jaurlaritzaren baitan elkarlanean GLEA eta HPS.....	29
5.3. Garabideren lana ezagutzeko aukera, BAT soziolinguistika aldizkarian eta EHuko udako ikastaroetan.....	30
5.4. Euskal Herriko eragileekin elkarlanean.....	31
6. 2020ko balantzea: kontuak argi.....	32
6.1. Garabideren egitura.....	32
6.2. Balantze ekonomikoa.....	33
6.3. Babesle, bazkide, laguntzaile eta boluntarioak.....	34

Garabide: lankidetzan hizkuntzak biziberritzen

Garabide **irabazi asmorik gabeko Gobernu Kanpoko Erakundea** da eta 2005ean sortu zen euskal lankidetzaren berria egiteko: hizkuntza lankidetzaren. Hau da, kooperazioan lan egiten dugu, baina lan(kidetzaren) hori hizkuntzatik abiatzea da proposatzen dugun berrikuntza eta, gaur egun arte, horretan ari den GKE bakarra gara.

Zer?

Hizkuntza lankidetzaren, euskal lankidetzaren bereizgarria

Euskal Herriak munduarekin partekatzearen duen esperientzia edo jardunbide bereizgarrietako bat euskararen biziberritze esperientzia da eta, aldi berean, **munduko beste biziberritze esperientzietatik asko dugu ikasteko**. Horregatik, Garabiden gizarte eraldaketaren ardatza hizkuntzen biziberritzean jartzen dugu. Izan ere, **komunitate edo gizarte baten garapenak ezin du integrala izan bere hizkuntza eta identitatea barnebiltzen ez baditu**. Garabideren egitekoak hiru lerro nagusitan sailkatzen ditugu:

- // Lehen lerro estrategikoa: finkatze instituzionala
- // Bigarren lerro estrategikoa: formazioa eta aholkularitza
- // Hirugarren lerro estrategikoa: gizarte aktibazioa Euskal Herrian

Zergatik?

Mundua larrialdi linguistikoan dagoelako

UNESCOren arabera munduan hitz egiten diren 6.000 hizkuntzen artean, gutxienez, %43 dago desagertzeko arriskuan. Gainera, Soziolinguistika Klusterrak ohartarazi moduan, **munduan gertatzen ari den hizkuntzen galera masiboa, proportzionalki, handiagoa da bioaniztasunaren galera baino**. Gaur egun, bi astetik behin uzten da hizkuntza bat hiztunik gabe. Hizkuntzen galera edo, hobe esanda, ordezkatzeko prozesuak (hizkuntza gutxituak hizkuntza hegemonikoekin ordezkatzeko baitira) ez dira naturalak eta horren kontzientzia sustatu nahi dugu. Gainera, hizkuntza ekologiaren alde **gizartea antolatu dadin sustatzen dugu gure praktikak eta politikak linguistikoki jasangarriak** izan daitezen.



kurduak



aimarak



k'icheak



amazighak



nasak



yucatango maiak



maputxeak



kitxuak



nawatak



guaraniak



kaqchikelak

Nola?

Esperientzia trukearen bidez

Kooperazio era berri honek egiteko modu berriak dakartza, hizkuntza gutxituetako biziberritze esperientzien elkartrukean oinarritzen baita. Komunitate bakoitzaren **hizkuntza biziberritze esperientzia edo know how hori sakonean ezagutzeko formazioa eta aholkularitza** dira gako nagusiak. Hala ere, ez dago errezeta bakarra hizkuntzak biziberritzeko, tokiko ezaugarrien arabera komunitate bakoitzak bere bidea egin behar baitu. Formazio eta aholkularitzek mahai gainean jartzen dute hizkuntza gutxituen auzia globala dela eta aukera eskaintzen dute **estrategia lokalak garatu dituzten munduko erreferente desberdinen esperientziak sistematizatu eta transmititzeko**. Azkenik, hizkuntza lankidetzak biziberritze lanetan ari diren eragileen sarea ehuntzen du eta horri esker ahaldundute (g)uneak eratzen dira, hau da, bestelako gutxiagotzeak elkar lotzen ditu hegemonien deseraikuntzan laguntzeko.

Norekin?

Euskalgintzarekin eta munduko hizkuntza aktibistekin zubigintzan

Gizarte eraldaketak, hizkuntza gutxituen biziberritzea kasu, arnas luzeko prozesuak dira eta bideragarriak izan daitezzen **tokiko eragileek gidatu behar dituzte**.

Gaur egun, Garabide munduko hamaika komunitaterekin ari da hizkuntza lankidetzan eta Euskal Herrian ere 80tik gora dira Garabideren entitate laguntzaile eta babesleak.

Non?

Euskal Herrian eragin mundua aldatzeko

Nazioarteko hizkuntza lankidetzak, begirada zabalean, **euskalgintzaren nazioartekotzea** eragiten badu ere, bere eginbeharra ez da urruneko lankidetzaren proiektuetara mugatzen, **Euskal Herrian gizarte aktibaziorako tresna garrantzitsua** baita. Hizkuntza lankidetzaren etengabe ari da euskararen biziberritze esperientzia jaso eta ezagutarazten, modu ulerterrazean dibulgazio eleaniztuna egiten (liburuxkak, ikus-entzunezkoak, erakusketak, hitzaldiak...), ez soilik nazioarteko eragileekin partekatze, baizik eta gurean **euskararen biziberritze esperientziari dagokion balioa eman eta esperientzia horren transmisioa errazteko**.

*Alba, Alvaro
gure bihotzetan betiko!*

Urte zail baten argi-ilunak

2020 urteak, mundua gogor astinduz, han-hemenka hainbat ondorio ekarri du. Garabide ez da salbuespena izan.

Urte ilun honetan Alvaro Aguilar, Mexikoko nawata, eta Alba Velasquez, Guatemalako kaqchikela, hil egin dira. Bi-biak, jatorrizko hizkuntzen aldeko ekintzaileak izanik, bidaide izan ditugu; baita Euskal Herriko formazio ikastaroetan ikasle ere. Goian beude!

Hala ere, pandemiak eragindako aldaketa guztiak ez dira tinta beltzez idatzi, eta Garabiden bide berriak urratzeari ekin diogu, kementsu bezain itxaropentsu.

Adibidez, formazioa ikastaroetara bertaratu ohi ziren erakundetako ordezkariak pandemiak bidea moztu dien arren, zubi lana teknologia berriek egin dute. Euskal Herrian aste batzuk ematen zituzten ikasleek, orain on line aurkitu dute aukera.

Egia da aurrez aurreko irakaskuntza ezin dela parekatu streaming bidezkoarekin, azkeneko horretan irakasle/ikasle harremana asko murrizten delako. Era berean, atzerriko ikasleek bertan eta zuzenean jasotzen zuten euskararen aldeko ahaleginen berri, pantailaren bitartez ezin dute modu berean bizi. Teknologia hotza da bertatik bertara ehuntzen diren harremanen alboan.

Baina, bestalde, internet bidez ahal da lurralde zein ikasle gehiagorengana eta merkeago iristea; eta, ikastaroa gainditu ondoren, posible litzateke euskararen lurraldeetara “ikasketa bidaia” egitea.

Urte zailari etekina aterata, teknologiak eskua luzatu die hizkuntza sekularrei etorkizunekoak ere izan daitezen. Garabidek ere bai.



Iñaki Martínez de Luna
Garabideko lehendakaria

Lehen lerro estrategikoa: finkatze instituzionala

2020ko ekintzak:
*etxealdiko
etxerako
lanak*

Koordinatzaile berria: Eñaut Agirre

Garabidek hizkuntza lankidetzaren biziraupena bermatzeko ahalegin etengabea dirau, euskal gizartean lan arlo moduan finkatzeaz harago instituzionalki ere bideragarria izan dadin. Aurten Garabideren lana aurrera eramaten duen lan talde teknikoari eutsi ahal izateko Aldi Baterako Enplegu-Erregulazioko Espedientea aktibatu behar izan genuen Garabiden. Bestalde, urte berezi honek aukera eman digu barnera begira jartzeko eta finkatze instituzionalari dagozkion hainbat lani heltzeko. Jarraian lerro estrategiko honi dagozkion 2020ko mugarriak aipatuko ditugu:

Urte berriak Garabideren organigraman aldaketa ekarri zuen, 7 kideko lan talde teknikoa gidatzeko koordinatzaile berria hasi baitzen lanean: Eñaut Agirre Goia. Bizi eta lan ibilbidea-ri erreparatuta, bertsogintzan egindako bideagatik da ezaguenen, baina Euskal Filologia eta

Hizkuntzalaritza ikasketak egin zituenetik ibili luzea du beste zenbait arlotan ere, nabarmenena Hernaniko kronikan lanean aritutako hamarkada. Garabiderako asmo eta gogoen artean honakoa nabarmendu zuen bere ongietorriko hitzetan: “Lankidetzaz edo kooperazioak noizbait planteatu beharko luke hizkuntza gutxituek ezinbesteko zehar-lerro behar dutela. Beste hainbat eskubideren parean, komunitate batek dituen hizkuntza-eskubideak eta identitate-eskubideak ezinbestean zaindu beharko genituzke”.



KOMUNIKAZIOA



WEBGUNEAK

2020an eutsi nahi izan genion hilabetero **2-3 albiste** argitaratzeko erronkari eta, pandemiaren lehen uneak gaudituz ondoren, maiatzetik aurrera lortu genuen. Gainera, aurreko urtean sortutako "Agenda" atala elikatzeak aukera gehiegi izan ez genuenez, erabaki genuen urte aproposa zela "Multimedia" ataleko "Bideoak" eta "Dokumentuak" azpiatalak hornitzeko. Hartara, **eskuragarri jarri genituen ikus-entzunezkoak, gidali-buruak eta liburuxkak**, besteak beste.

SARE SOZIALAK

Instagram kontua ireki dugu aurrean, @garabideelkartea, eta erantzun ona jaso dugu. Urtea bukatzean 500 jarraitzaile pasa genituen, horien artean, adinari dagokionez, %42 ziren 25-34 urte bitartekoak eta, sexuari dagokionez, %67 emakumezkoak.

BULETINA

Urtaroan behin debalde bidaltzen dugu buletina eta 2020 urtean **formatuan moldaketak** egin genizkion. Testu luzeak bertan bildu ordez, titularrak alorke sailkatu eta esteken bidez bideratzen da orain hartzailea hizkuntza lankidetzarekin ha-

rrerama duen albiste, tresna edo bestelako edukira. Gainera, **munduko hizkuntza gutxituetako aktibisten jardunari ahotsa** eta tokia eman nahi izan diogu formatu berrian eta baita hizkuntza gutxituen alde Euskal Herrian lan egiten duten eragile lanari ere.

BLOGA

Allartean da gure blog arrakastatsua, ez bairik gabe. Blogariak, soziolinguistika ardatz hartuta, testu laburrak baliatzen ditu hausnarketarako. Zenbakitara ekarrita, 2020 urtean 11 testu argitaratu zituen eta, trukean, 478 bisita jaso. Zorionak eta mila esker!

Genero Berdintasun Antolaketa Alderak

Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Lan-
kideztaren Euskal
Agentziak GBA edo
genero berdinta-
sunaren aldeko antolaketa al-
daketa prozesuak bultzatze-
ko deialdiak egiten ditu, hala
lankidetzaren erakundeek genero
berdintasunaren aldeko bi-
dean aurrera egitea errazteko.
Garabidek deialdira proiektua
aurkeztu eta lortu zuen bere
proposamenak aurrera egin
zezan. Funtsean, barne-eral-
daketa sustatzeko laguntza
honek lau fase ditu:

1.-Genero-diagnostiko parte
hartzailea egitea

2.-Genero-berdintasunaren
aldeko ekintza plan strategi-
koa diseinatzea

3.-Genero-berdintasunaren
aldeko ekintza plan strategi-
koa inplementatzea

4.-Genero-berdintasunaren
aldeko ekintza plan strategi-
koa ebaluatzea

**2020-2021 epean lehen bi fa-
seak gauzatzen ari dira** eta,
zehatzago, 2020 urtean GBA
prozesuaren lehen fasea-
ri dagokion diagnostiko par-
te-hartzailea egin genuen.



misioa

POLITIKAK

IBILBIDEA

ANTOLAKETA
KULTURA

egitura

LAN
PROZEDURAK

ERABAKIAK

KOMUNIKAZIOA
ETA GARAPENA

pertsonak

PERTSONEN
KUDEAKETA

MANIOBRA
MARJINA

JARRERAK

ikuspegi
politikoa

ikuspegi
teknikoa

ikuspegi
kulturala

Asunaren Aldeko aketa prozesua



GBA prozesuan murgildu ginen Garabiden bagenekielako hausnarketa kolektibo batera eramango gintuela eta genero diagnostikoak eramango gintuela, besteak beste, gure politikak, berdintasunaren alde aurretik egindako lanak, antolaketa-kultura, lanaren barne-prozesuak, erabakiak hartzeko moduak, komunikazioa, pertsonen kudeaketa eta jarrerak aztertzeraz eta horietan jarri nahi izan genuen fokoa benetako salto kualitatiboa emateko.

Prozesua benetan parte hartzailea izan dadin Garabiden

parte hartzeko modu guztiak barnebildu nahi izan ditugu (boluntarioak, bazkideak, zuzendaritza, kontseilu nagusia, babesleak, lan talde teknikoak...) eta, aldi berean, sistematikoki jardun dugu. Horretarako **3 figura sortu genituen propio prozesurako**, perfil aniztasuna (generoa, adina, lurraldetasuna, formazioa generoan, Garabideren egituretan parte hartzeko modua...) eta operatibotasuna uzartzeko ahaleaginean:

Lehen fasean diagnostikoa egiteko generoaren inguruko informazio kuantitati-

Genero taldea:

// Marisa Barrena
// Ane Pedruzo
// Ander Bolibar
// Maiteder Sasieta
// Iñaki Martinez de Luna
// Maialen Sobrino

Genero erreferentea:

// Maialen Sobrino

Kanpo aholkularitza - EMUN:

// Sonia Etxenausia - teknikaria
// Oihana Jausoro - arduraduna

boa eta kualitatiboa bildu genuen **hainbat tresna erabilita: behaketa zuzena, gaikako galdetegiak, saio parte hartzaileak, banakako elkarrizketak...** Emaizak diagnostiko txostenean biltzerakoan GBA prozesuaren lehen fasea bukatu eta, hori oinarri hartuta, 2021ean diseinatuko dugu genero-berdintasunaren aldeko ekintza plan estrategikoa.

Bigarren lerro estrategikoa: formazioa eta aholkularitza

2020ko ekintzak:
*hizkuntza
lankidetzaren
digitalizazioa*


On-line ikastaro arrakastasua

ON-LINE IKASTAROA. Orain arte, eragileen eta adituen bidaia ezinbesteko osagaiak izan dira gure esperientzia elkartruke proiektuetan, baina 2020ak funtzionamendu hori aldarazi digu errotik. 2020an COVID-19ak eragindako pandemiak markatu du agenda globala eta Garabidek eta bere egitasmoek ere ezin izan dituzte ondorioak saihestu. Gure lana esperientzien elkartrukean oinarritzen da eta pertsonak, komunitateak edo erakundeak elkarren alboan jarritz burutu ohi dugu, elkarrengandik ikas dezaten. Historikoki, gure formazio proiektu sendoenak burutu izan dira Euskal Herriko adituak Hegoko komunitateetara joanez edo Hegoko komunitateetako ordezkariak Euskal Herriera etorritik euskararen biziberritze esperientzia bertatik bertara ezagutzeko. 2020an, ordea, ezin izan da halakorik egin. Dena den, egoeraren beharrezan moldatu gara eta, beste modu batean bada ere, jarraitu ahal izan dugu aurrera Hegoko komunitate desberdinekin dugun elkarlanarekin, on-line izan bada ere.


Pandemia egoera honek balio izan digu aspalditik entzuten ari ginen ahots bati erreparatzeko: gure formazioak on-line (ere) eskaintzeko aukerarena, hain zuzen ere. Geroz eta herrialde gehiagotatik iritsi zaizkigu formazio eskaerak azken urteetan eta iradoki beste egin digute formazioak beraien herrialdeetan bertan burutuz gero eragile gehiagorengana iritsiko ginela. Eta on-line modalitateak ematen du horretarako bide.

Bi elementu horien –pandemia eta formazio eskaera hazkundera– testuinguruan sortu da, beraz, 2020an lehenengoz antolatu dugun “Hizkuntza Biziberritzearen Oinarriak” on-line ikastaroa. 36 partaide izan ditu inflexio puntutzat markatu dugun egitasmo honek, 22 emakume eta 14 gizonezko, 11 komunitate-takoak: Boliviako 2 quechua eta 3 guarani, Mexikoko mixé 1, nawuat 1 eta 10 Yukatango maia, Wallmapuko (Txile) 5 maputxe, Ipar Afrikako 2 amazigh, Ekuadorreko 4 kichwa, Guatemalako 2 kiché eta 3 kaqchikel eta Kolonbiako 3 nasa.

Azaroaren 5aren eta abenduaren 8a bitartean burutu dute partaideek formazioaren arlo teorikoa. Arlo teorikoa diogu formazioak arlo praktikoa ere baduelako, eta urtarrila eta otsaila bitartean formazioak eskuratutako ezagutza teorikoen aplikazio praktikoa izango den proiektua garatzen eta aplikatzen ariko direlako beraien komunitateetan.



0



Kursoaren balorazio ofizia-
la partaideek proiektuak amai-
tutakoan egingo den arren, oso
pozik gaude eta izan duen harrera
eta erantzunarekin eta lehen edi-
zioa izateak nahitaez sortu dituen
korapilotxoak orraztean, hurrengo
edizioetarako hobekuntza eta be-
rrikuntza ugari txertatu ahal izango
ditugula ziur gaude. Behin oinarria
sortuta, uste dugu on-line formazio
honek komunitate berri eta eragile
gehiagorengana iristeko mugarri
ederra ezarri duela.

Maddi Iñarra

Ernamuintxoa

YUKATANGO
MAIA



MEXIKO. Demagun hizkuntza-lankidetza arte txiki bat dela. Jardun horrek zaindu behar dituen alde ugarietz gain, beste hau ere hartu behar du kontuan: artea bakarra izanik ere, artisautza desberdina eskatzen duela leku bakoitzean.

Herri bakoitzaren zumitzak desberdinak direnez, hizkuntza biziberritzeko estrategia-hurbilpenak ere desberdina izan behar du leku bakoitzean. Estrategia hori eraikitzen bidelagun izatean datza hizkuntza-lankidetza, eta ondorioz, lankidetza hau ere herri bakoitzean berrasmatu behar da apur bat.

Yukatango maiaren kasuaren berezitasunak aipatu ditugu aurreko urteetako memorietan. Berezitasun horien haritik, Yukatanen prozesu berezi baten bidelagun gara: hizkuntza biziberritzeko mugimendu penintsular baten sorrera eta artikulazioa. Orain arteko formazio, gogoeta, solasaldi, eta ezagutza-trukeek horretara eramane gaituzte. Lehenetsuna ez dira eskolak, murgiltze ereduak, helduen irakaskuntza, hedabideak, legea, materialak. Lehenetsuna hiztun komunitatea bizibe-

rritzeko ametsa sortu, taupatu eta barreiatuko duen mugimendu zibil penintsular bat artikulatzen hastea da. Wayé mugimenduaren hazia erne da, Yúuyum elkarte sortu berria tresna tekniko harturik. Eta hortik izango dira emankor gainerako ekinbide sektorialak. Besteak beste, lehen aldiz udaletan hizkuntza plangintzak sortzeko prozesua abiaraztea. Udalen plangintzetarako lehen harria Meridan jartzea espero da, penintsulako hiri nagusian.

Wayé mugimenduaren lehen harriak jartzen hasiak zirela harrapatu gaitu pandemiak. Ez dira hilabete egokienak izan mugimendu bat martxan jartzeak eskatzen duen lan mota egiteko. Hala ere, hartarako oinarri batzuk lantzen aritu dira ekintzaile maiak, materiala sortzen, herrietan hedatzeko bira prestatzen, Meridako udaleko plangintzarako loturak egiten. Lanak eta denborak esango du ze ibilbide egingo duen. Mugimenduaren hasierako ernamuintxoan gaude. Datozen urteetarako galtza bete lan izango da.

Jon Sarasua

Ezohiko urtea

N A W A T



79

MEXIKO. 2020 urtea oso berezia izan da TOSEPANeko egitasmoan. Hori adierazten digute honako hauek: ditxosozko pandemiak baldintzatu du martxa normala, plan linguistiko eta identitarioaren ardura zuen teknikariak zereginari utzi zion eta, azkenik, mingarriena, irailean, 42 urtez Tosepaneko zuzendari nagusia izan zen Alvaro Aguilar betiko joan zitzaigun. Ustekabeko heriotza horrek baldintzatu du neurri batean Tosepanen jarduera eta, zer esanik ez, plan identitario-lingüistikoaren dinamika.

Aurreikusi gabeko gauza guztiak ez dira txarrak izan, ordea. 2020. urtean SEI plana (plan sozio-ekonomiko-identarioa) pentsatu, ardazu eta praktikan jartzen hasi gara. Egitasmo berri-tzaile honetan Mundukide eta Lankirekin ari gara elkarlanean. Urtearen azken hiruhilekoa oso in-tentsoa izan da: boluntarioa eta ekonomian adi-tua den Carlos Osés hilabete eta erdiz egon zen

Cuetzalan-en egoera sozio-enpresarialaren diag-nostikoa egiten. Jadanik fruituak ematen hasi den dinamika indarrean jarri da.

Bistan da, SEI egitasmoaren sorrera eta garape-narekin ilusio handia dugula; bai egitasmo zehatz honek eman ditzakeen emaitzengatik bai egitas-moak, aurrera begira, zabaldu dezakeen bideaga-tik.

Arlo identitario-lingüistikoan ere badira berri onak. Leticia Vazquez gazte nawatak Garabideren on-line ikastaroa egin du eta, urte berriarekin ba-tera, helduko dio gaiaren ardura tekniko izateari.

Balorazioa borobiltzeko, esan dezakegu urte zaila izan dena ondo bukatu dugula eta, aurrera begira, itxaropentsu gaudela.

Gafxi

Bigarren lerro estrategikoa: formazioa eta aholkularitza

Zailtasun guztien gainera, aurrera!

NASA
HERRIA

KOLONBIA. Garabidek Caucaho Iparraldeko CECIDIC (www.cecidi.edu.co) ikastetxearekin 2 urteko (2019-2020) Formazio Teknikoa ahalbidetu du, Khakeçx üus dxi'jan kwe'sx yuwes kçxhäçx-häjxa' / Nasa Yuwe hizkuntzaren biziberritze prozesua kudeatzeko ikastaroa: 800 eskola-ordu, ikerketa-proiektua eta tutoretza. Lehen aldiz jatorrizko hizkuntzan egin den halako ikastaroa 55 nasek burutu dute.

Ikastaroak 5 lerro nagusi izan ditu: 1) kultura-aren eta identitatearen oinarriak ezagutaraztea, 2) nasa yuwe hizkuntzaren egoera soziolinguistikoa aztertzea, 3) nasa yuwe hizkuntzaren alfabetatzea, 4) nasa yuwe hizkuntzaren biziberritzerako hainbat arlotako estrategiak, teknikak eta metodoak garatzea, hala nola, hezkuntzarako, helduen irakaskuntzarako eta hizkuntza plangintzarako, eta 5) nasa yuweko kultur ekoizpena sustatzea.

2020ko urtea latza izan da nasentzat eta, oro har, Kolonbiako indigenentzat eta landa eremuetako komunitate afro eta nekazariarentzat. Batetik, bortizkeria politiko (gerrilak, paramilitarrak, armada) eta soziala (narkotrafikoa) izugarri handitu eta gogortu delako: heriotzak (40tik gora nasa erailak), atentatuak, mehatxuak, etxe erreak, eta abar. Bestetik, covidin izurria, nahiz honek ez duen jo landa-eremuan hirietan beste.

Zailtasunak zailtasun, ikastaroa burutu da, formazioa zuzeneko ezin izan denean gauzatu on-linez edo bide alternatiboak erabiliz eginik. Partaide guztiek balorazioa oso positiboa egin dute.

Andoni Berreña

Kitxuaren Biziberritze Estrategietako Lehen Nazioarteko Ikastaroa Ekuadorren

KITXUA



27

EKUADOR. Garabidek Ekuadorreko kitxua komunitatearekin hizkuntza lankidetzan ibili luzea du. Hain zuzen ere, Garabidek Euskal Herrian antolatzen dituen ikastaroetan formatutako aktibista kitxuek osatu zuten 2017an Sisariy antolakundea, kitxuaren biziberritzean lanean ari diren elkarteen bilgunea. Sisariyk eta Garabidek elkarrekin antolatu genuen 2020ko urtarrila eta martxoa bitartean Kitxuaren Biziberritze Estrategietako Lehen Nazioarteko Ikastaroa Ekuadorreko Ibarra hiriko UTN unibertsitatean.

Kitxuaren aldeko 40 eragile estrategikok jaso zuten 120 eskola-orduko formazioa. Irakasle izandako 12 aditu kitxuak eta 6 euskal adituak hizkuntzen biziberritzerako erakunde erreferentzialetako kide dira, esaterako euskaldunen artean

Soziolinguistika Klusterra, Elhuyar Fundazioa, AEK, Andoaingo Udala eta Aiaraldea Ekintzen faktoria. Metodologikoki ikuspegi teoriko-praktikoa hobetsi zen, helburua ikastaroan landutakoa hizkuntza biziberritzeko proiektu zehatzetan aplikatzea zelako.

Guztira 9 proiektu diseinatu ziren eta pandemia-
ren eraginez ezarpena zaildu bazen ere ikastaroari jarraipena emateko nazioarteko on-line foroak antolatu ziren hizkuntzaren biziberritzearekin lotutako alor gakoetan munduko hizkuntza aktibistek euren esperientzia zehatzak kontatzeko. Bost foroak Garabideren webgunean daude ikusgai (gazteleraz).

Maialen Sobrino

Bigarren lerro estrategikoa: formazioa eta aholkularitza

Balio komunitarioak sendabelar

GUARANI



BOLIVIA. Boliviako hegoaldeko herrientzat hamarkadako lehorterik handienarekin eta aurreko urtean Chacoan 6 milioi hektarea erre ondoko aje latzarekin abiatu zen 2020a. Urriko hauteskundeetan pasa zitekeena aurreikusi ezinik, ziurgabetasun eta desegonkortasun politikoko giroa bizi zen eta hori ez da inoiz izan testuingururik egokiena, ez klima aldaketari aurre egiteko, ez estatu plurinazionalaren eraikuntzarako, ezta hizkuntza indigenen indarberritzea sakonago jorratzeko. Ataka gaitz honetatik iritsi zen guaranien artera pandemia, pairatzen duten egiturazko pobrezia are makurrago sufriaraztera.

Ez du horrek guztiak, baina, guaranien herri nor-tasuna apaldu. Jakintza eta kosmobiso komunitarioan sakontzeko unetzat irakurri dute egoera hau. Ezagutza horren zabalkundea izan da osasun-es-trategien ardatz.

Funtsean, indargune horietan oinarrituta, eratu da Charagua Iyambaeko autonomia indigenarako hizkuntza planeko lantaldea ere. Eta oraintsu arte autonomia indigena guarani bakarra zena-rekin beste lau ere eratuz doazela ikusi dugu; bada, beraz, non gorpuztu guarania biziberritze-ko politika.

Hor jarri dugu gure kooperazio linguistikoaren lehen-tasuna, kultura guaraniaren arnaguneetako hizkuntza-arduradunen ahalduntzean eta prestakuntzan. 2020an horretarako aurrelanak egin dira: online ikastaroan ordezkartza guarania ziurtatu, Charaguako gazteentzako sentsibilizazio saioak, eragile-sarea zabaldu eta ardura-dun politikoen babes-lortu, besteak beste.

Txema Abarrategi

Mapuzugunaren digitalizazioa

MAPUTXE



WALLMAPU. Hirietako maputxeak, ahal izan duten heinean, euren jatorrizko komunitateetara itzuli dira pandemiaren gogorrenetik ihesi. Herriotan, landa giroko bizimoduan, isolamendua izan da nagusi urtearen zati handi baten.

Horrek hizkuntza-lankidetzan gure bitartekaria den Mapuzuguletuaia bezalako erakunde maputheen funtzionamendua zuzenki mugatu du eta mapuzugunaren arnasberritze prozesuko dinamikak geldotu ditu. Baina ez unean uneko erronkei uko egiteraino. Urtero helduentzat antolatu ohi diren ikastaroak eta barnetegiak formatu digitalera egokitu dira eta irakasle –kimelfe– taldeek lan eskerga egin behar izan dute (materiala sortu eta moldatu, harreman sareak eta segimendurakoak egituratu, gabezia digitalak zituzten eskualdeetako ikasleentzako alternatibak bilatu...) ikasturtea gauzatu ahal izateko

eta hiztun berrien katea hedatzen jarraitzeko.

Halabeharrez heldu behar izan zaio, Wallmapun zein Euskal Herrian, irakaskuntza bide berriei eta horrek emari positiborik ere utzi du: material didaktikoaren sorkuntzan goia jo du Mapuzuguletuaiañeko lantaldeak.

Bestalde, arretaz jarraitu ditugu biziberritze-prozesura hurbildutako aktore berrien proposamenak, PUCeko Villarricako campusean plangintza estrategikoa garatzeko aktibatu den eragile taldearena, esaterako. Eta harremanetan izan gara bere mapuzugunaren ikaskuntza sustatzeko konpromisoa berretsi duen eta Kulturen, Arteen eta Ondarearen Ministerioaren mende dagoen Jatorrizko Herrien zuzendariordezarekin.

Txema Abarrategi

Guatemalako maia hizkuntzetan Wikipedia sortzen

KAQCHIKEL



GUATEMALA. Garabidek hizkuntza lankidetzaren bidez lotu zituen Euskal Wikilaren Kultur Elkar-
tea eta Guatemalako Chi Xot Maia Kaqchikel Uni-
bertsitatearen (UMK) baitako aktibista digitalen
taldea. Proiektuaren helburua Guatemalako maia
hizkuntza nagusietako Wikipedien sorrera bul-
tztatzea zen, zehazki kaqchikel, q'eqchi eta k'iche
hizkuntzako Wikipediak. Proiektuaren baitan
aurreikusitako ekintza nagusiak ondokoak ziren:

// Tailerrak 3 hizkuntzako aktibista digita-
lekin Wikipedia sortzeko prozesuari buruz

// Wikipedian artikulak sortzeko bideo tuto-
rialak (kaqchikelez, q'eqchiz eta k'ichez)

// Sentsibilizazio tailerrak eskoletan irakasle
eta ikasleak Wikipediara hurbiltzeko

// Komunikazio kanpaina sare sozialetan aktibista
digitalak Wikipediara hurbiltzeko

// Modu jarraian Wikipediak elikatzeko talde era-
gileak osatzea

Pandemiak bizimodua eta lehentasunak erabat irau-
li bazituen ere, aurretik egindako lanari esker eta
proiektuari moldaketak eginda aurrera jarraitzea lor-
tu zuen. Gaur gaurkoz, kaqchikel eta k'iche hizkun-
tzako Wikipediak inkubadora fasean daude. Honen
berri emateko, aktibista digitalen taldeko Cecilia Tu-
yuc kaqchikelak hitzaldia eskaini zuen abenduaren
18an Barañaingo Udalarekin elkarlanean antolatu-
tako topaketan. “Sorkuntza kolektiboa hizkuntza
gutxituetan” izenburupean Hatzamarkako Sarai Ro-
blesekin batera aritu zen Tuyuc eta biek nabarmendu
zuten zailtasunak-zailtasun euskaraz, zein kaqchi-
kelez sortzen jarraitzearen garrantzia, gure hizkun-
tzak ezinbesteko tresna baitira etorkizuna eraikitze-
ko.

Maiafen Sobrino

Amazigak Iparraldetik datoz

AMAZIGH

MAROKO ETA ALJERIA. Afrikako iparretik, esan gabe doa. Baina gurean, amazigekiko elkarlanean, Ipar Euskal Herriko Erabil kolektiboaren kolaborazioa izan dugu bizkorgarri 2020an.

Izan ere, bai riftarrekin bai kabilioekin frantsesa dugu hizkuntza frankoa, momentuz bederen, biziberritze-eragutza partekatu ahal izatea errazten diguna.

Urtea ia joan zitzaigun bertatik bertarako topaketa egin ahal izateko esperantzan. Hura, udaberritik udara eta gero udazkenara gibeleratuta, azkenean gauzatu ezinik ere eta eragozpenak eragozpen, sendotu dugu gure solaskidetza eta bitartekaritza margrebtarra eta bideratu ditugu ordezkari amazigak on-line ikastarora. Eta ildo horretan aipamen berezia egin behar zaio Garabidek bere online eskaintza frantsesera ere egokitze egingandako lanari. Funtsean, egin ditugu urratsak euskaldunak eta amazigak etorkizuneko egitasmoetarako gerturatzeko.

Horren adierazlerik onena abenduaren 16ko eta 17ko nazioarteko jardunaldia dugu. Bertan 12 hizlari euskaldun, kabiliar eta riftarrek hartu zuten parte, gure biziberritze prozesuen halako ekinbide-mapa marraztuz. Aktibazio soziala, aktibismo digitala, kultur ekoizpena, hezkuntza alorreko erronkak edota hizkuntza biziberritze-ko prozesuen artikulazioa izan ziren garatutako gaietako batzuk. Interes handia piztu zuen hizkuntza-aktibista amazigen artean bilera birtual

horrek. Eta, esan bezala, Iparraldetik helarazitako kontakizunekiko konexioa erabatekoa izan zen; lapurtar, baxenabartar eta zuberotarren ekarpena.... Xapo!

Txema Abarrategi



Hirugarren lerro estrategikoa: aktibazio soziala Euskal Herrian

2020ko ekintzak:
*leihoak
mundura,
mundu oso
bat etxean*

“Hizkuntza Indigenak Ama Lurra Zaintzen” liburuaren argitalpena



28

“Diotenez, basoa sutan desegiten ari zen, eta animalia guztiak ere sutan galtzeko arriskuan zeuden, baina ez zuten erreakzionatzen, hon-damendiari begira zeuden. Kolibri txikiak, oso kezkatuak, eta sugarrei aurre eginez, errekarara joan eta ere moko txikiarekin ur pixka bat hartu eta sutara botatzen zuen. Jaguarrek hau ikus-tean esan zuen: -zertan zabilta kolibri txiki?-. Honek arnasa hartu eta erantzun zio: -sua itzali nahian nabil-. Jaguarrek esan zion ez zuela lortuko. Eta kolibriak, -ni nire partea egiten ari naiz, denok berdin egingo bagenu, bakoitzak berea egingo balu, sua itzaltzea lortuko genuke-”.

Horrela hasten da Mikel Mendizabalek eta Tuî Huni Kuîk egokitu duten Brasilgo mito herrikoia.

Garabiden ere kolibriak bezala, gure aletxoa jarri nahi izan dugu argitalpen honen bitartez. Liburu honetan desagertzeko arrisku larrian dauden 11 hizkuntza komunitateren testu eta marrazkiak topatu ditzakegu eta “kultura” hitzak komunitate bakoitzean zer adiera hartzen duen ikusi daiteke bertan. Hizkuntza ekologia edo ekologia indigenaren perspektiba gureganatzeko saiakera izan da liburu hau, elkarlanean osatua bai egileei dagokionez eta baita argitaratze lanak hartu dituzten erakundeei begiratuta ere. Izan ere, Garabide Elkarteak, EHUko Munduko Hizkuntza Ondarearen Unesco-Katedra eta Easo Politeknikoaren arteko lankidetzari esker argitaratu da liburuak.

Eusko Jaurlaritzaren baitan elkarlanean GLEA eta HPS

2020 urtean zehar hasiera eman diogun proiektu honek Garabide Elkartek duen ardatz estrategiko bati erantzuten dio. Euskal lankidetzan hizkuntza lankidetzak lantzea eta herri modura egiten dugun lankidetzak munduko herrien hizkuntzetan zer eragin duen hausnartu nahi izan dugu proiektu honen eskutik. Izan ere, Garabideren helburue-tako bat da lankidetzan jarduten duten eragile eta instituzioek hizkuntzak eta kulturak kontuan har-tu ditzatela haien proiektuen baitan, eta batez ere gutxituak dauden hizkuntzak.

Helburu horiek lortu asmoz Garapenerako Lan-kidetzaren Euskal Agentzia eta Hizkuntza Po-litikarako Sailburuordetzarekin batera ikerketa proiektu hau diseinatu da. Proiektu honen hel-burua Garapenerako Euskal Lankidetzak erakun-deen analisia eta diagnostikoa egitea da, lanki-detza mota ezberdinen arteko ikuspegi integratua kontua harturik. Lankidetzan diharduten euskal erakundeek nolako eskarmentuak dituzten eta zein diren beren asmoak era sistematikoan eza-gutzea izan da asmoa, betiere lankidetzaren alor sozioekonomikoa eta alor kultural-linguistikoa modu integratuan ulertu, jorratu eta garatzearen ikuspuntutik.

Horretarako hainbat faseko ikerketa prestatu da eta 2020 urte bukaeran hasiera eman zaio le-hen faseari. Ikerketaren hasiera honetan ikerke-ta kuantitatibo bat egin da egoeraren diagnostiko oso bat lortze aldera. Esan bezala, 2021 urtean ere proiektuak aurrera jarraituko du, eta Garabiden ilusio handiarekin begiratzen diogu proiektu ho-nek eman ditzakeen emaitzei.

***Euskal Herritik egiten
den lankidetzak ekarpen
kualitatibo handia
egin lezake, baldin eta,
adar sozioekonomikoa
eta adar kultural-
linguistikoa sustraitik
batuz, esperientzia
osatuagoak eta
eredugarriak sustatzen
asmatzen badu.***

Garabideren lana ezagutzeko aukera, BAT Sozio- linguistika Aldizkarian eta EHUko udako ikastaroetan



Soziolinguistika Klusterrak hizkuntza lankidetzari eskaini zion 2020ko lehenengo hiruhileko BAT aldizkaria, 114 zenbakia. Garabideko lanaz ari dira hainbat artikulua.

Begirada orokor batean, lankidetzaren ikuspegi holistikoa edo osoaz ari da aldizkariko lehendabiziko artikulua. Oso sakonetik aztertzen da, Kolonbiako nasa herriarekin izandako esperientzia, hiru artikulutan. Eta ikuspegi politikoa eranstean dio beste artikulua batek, Boliviako kasua eta amazig hizkuntza komunitatearena konparatzen baitira bertan.

Hori guztia, beste esperientzia eta ikuspuntu intergarriak lantzen dituzten artikuluez lagundua.

BAT 114 – Aurkibidea:

// «Hitzaurrea». Belen Uranga

// «Lankidetzaren ikuspegi holistikoa». Iñaki Martinez de Luna

// «HIZKUNTZA LANKIDETZAREN DIMENTSIO POLITIKOAZ. Estatu plurinazional bati eta nazio pluriestatal bati begira». Txema Abarrategi

// «Nasak eta euskaldunak elkarri begira». Julen Larrañaga, Mikel Mendizabal, Andoni Barreña

// «Nasa Yuwe biziberritze prozesua eta hezkuntza». Rosa Elizburu

// «Euskal-nasa kooperazioa helduen irakaskuntzaren ardatzean». Arkaitz Zarra-ga eta Ane Ortega

// «Maoriera, ordezkatzeta eta biziberri-tzea». Imanol Miner

// «Hizkuntza-mudantza EAEko ikasle-engan». Iñaki Martinez de Luna eta Pablo Suberbiola

HIZKUNTZA LANKIDETZA ARDATZ, EHUko UDako IKASTAROAN: «HIZKUNTZA GUTXIAGOTUEN BIZIBERRITZEA ETA GARAPEN IRAUNKORRA»

Unesco Katedrak antolatuta eta EHUko udako ikastaroen barruan, bi eguneko jardunaldia izan zen 2020ko irailean, Donostiako Miramar jauregian. Zuzenean eta online bidez jarraitu ahal izan ziren jardunaldiak eta bertan Garabideren lana ezagutzeko aukera izan zen, beste hainbat esperientziaren artean.

Yukatango maiekin egindako lanaz aritu zen Jon Sarasua, eta Ane Ortega nasa herriarekin izandako esperientzia kontatu zuen, besteak beste.

Euskal Herriko eragileekin elkarlanean

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO IKASLEEKIN EGINDAKO ANIMAZIOZKO IKUS- ENTZUNEZKOA

Elkarlanari esker urtero ikus-entzunezko bat ekoizten du Garabidek. Izan ere, Mondragon Unibertsitateko **Komunikazio gradu**ko ikasleek **Gradu Amaierako Lan gisa** burutzen dute urtero ikus-entzunezko bat **Garabidek** proposatutako **hizkuntza komunitateari buruz**. 2020 urtean Guatemalako kaq-chikel eta k'iche komunitateara bidaia egin zuten 3 ikasleek (Uxue Botas, Mercedes del Ama eta Nerea Elorza) eta bertako ahozko tradizioan oso ezaguna den "Rabinal Achi" obra ekarri zuten animaziozko ikus-entzunezko batera, jatorrizko bertsiotan euskarazko azpitoluekin.

GUAIXEREN ESKUTIK TOKIKO HEDABIDEAK HIZKUNTZA LANKIDETZAN

2019an hasi zen elkarlanean Garabide Guaixe Fundazioarekin, hain zuzen ere, yukantango maia komunitateko Yuuyum irriarekin zubigintzan aritzeko, biak tokiko komunikabideak baitira. **2020 urtean Sakanako komunikabide nafarra eta Meridako hedabide yukatandarra artikulua trukean aritu dira**, euren irakurle eta entzuleengana urruneko hizkuntza gutxitu ba-

EUSKARALDIAREKIN BIDEO TRUKAKETA KANPAINA INSTAGRAMEN

"Saiatu zara inoiz beste hizkuntza gutxitu batean hitz egiten?" Hala zioen Euskaraldirako beroketa moduan Instagramen botatako erronkak. Astero hizkuntza

gutxitu desberdin bateko aktibista batek bidaltzen zuen bideoan "gehiago, gehiagorekin, gehiagotan" leloa euskaraz eta, trukean, bere hizkuntzan esaldi bat errepikatzeko eskatzen zigun. Instagram bidez egin genuen astez-aste bideo trukaketa Gasteizko Euskaraldiko auzo batzordeekin.




TXILLARDEGI-HAUSNARTU SARIKETAN GARABIDETARRAK IRABAZLE

Beñat Garaio eta Ainhua Moron EHUko ikasleek, biak praktikaldira Garabiden egindakoak, hizkuntza lankidetzan oinarri duen **"Tokiko komunikabideak hizkuntza biziberritzeko eragile: Ipar Euskal Herriko eta Yukatan penintsulako hiru kasu-azterketa apreziatibo"** ikerlana aurkeztu zuten Soziolinguistika Klusterraren **Txillardegi-Hausnartu sariketara eta 3.saria** eskuratu zuten 2020ko azaroan.

2020KO BA *kontu*

EGITURA

32



BABESLEAK

Euskal Herriko 33 entitate.



LAGUNTZAILEAK

Euskal Herriko 49 entitate sozial.



BOLUNTARIOAK

37 Boluntario.



BAZKIDEAK

83 Bazkide.

BALANTZEA

ak argi

BALANTZE EKONOMIKOA

SARRERAK

Diru-laguntza lehiakorrak	163.940,00€
Hitzarmenak, bazkideak, produktu eta zerbitzuen salmenta	38.000,00€
Bestelako ekarpenak	60.250,00 €
GUZTIRA	362.190,00€

GASTUAK

Bidaide programa: hizkuntza komunitateekiko lankidetza proiektuak + on-line formazioak	207.580,00€
Hegoko diplomaturak	153.175,00€
Administrazioa	5.125,00€
Koordinazioa	9.435,00€
Zabalkundea	8.100,00€
GUZTIRA	383.415,00€

BABESLE, BAZKIDE, LAGUNTZAILE ETA BOLUNTARIOAK

Garabideren lana erakundeek, zein norbanakoek babesen dute. Ekarpen ekonomikoa egiten duten erakundeei babesle deitzen diegu eta norbanakoei bazkide. Aldiz, diruz bestelako ekarpena egiten duten erakundeak laguntzaileak dira eta norbanakoak boluntario.

Garabidek 2020 bukaeran 33 erakunde babesle zituen, tartean Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Euskal Herriko 25 udal, 2 mankomunitate eta 4 enpresa. Horrez gain, zinez eskertu behar dugu gure 83 bazkideek erakutsitako babe-

sa. Aurten, salbuespen egoeraren aurrean, kuota ordaindu gabe bazkideetza mantentzeko aukera eskaini diegu pandemiak eraginda zailtasun ekonomikoak zituzten gure bazkideei.

Ekarpen ekonomikoa egitetik haratago, 37 boluntarioen eta 49 entitate laguntzailearen lana aitortu eta zintzoki eskertu behar dugu, hizkuntza lankidetzaren proiektuetan euren denbora eta esperientziak partekatzeagatik.

Dimentsio eta ezaugarri anitzeko ekarpen guzti horien baturari esker izan da posible memoria honetan jaso ditugun hizkuntza lankidetzaren ekimenak aurrera eramatea. Beraz, eskerrik asko guzti-guztioi.

• BABESLEAK •



ANOETAKO UDALA



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



ARAMAIO UDALA
ARABA



Aretxabaletako
Udala



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN




Astigarragako Udala



azpeitiko udala
denon artean



Ayuntamiento de
BARAÑÁIN
BARAÑÁINGO UDALA



Baztango Udala



Beasaingo Udala



Bergarako
Udala



BERMEOKO
UDALA



Berriatua
Elizateko
Udala



DURANGO
Udala • Ayuntamiento



EUSKARA ETA BERROKUNTZA SOZIALA



Errenterriako Udala



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



Gipuzkoako
Foru Aldundia



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Irurako
udala



kutxa
FUNDATZIOA



Legutzioko Udala



OIARTZUNGO
UDALA



ORIOKOUDALA



Otxandioko
Udala



s a k a n a



TOLOSAKO UDALA



Usurbilgo Udala



Zumaiako Udala

• LAGUNTZAILEAK •



ahotsak.eus
Euskal Herriko hizkerak eta ahosko ondarea



ai arizmendi
ikastola



AURTZEN BAI

BAM
Begoñako Andra Mari
IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA
ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO



Etxe pare
Zerbitzua
Hortara lagun aditza
Garatu herria Berri
kadakda Heulzaruen
andio Behardoren thor
nuy 2. Berri gendevile
ten Euzenbikazaren
Oyar - urephongata Eug
Oyar cuela.
LIZEOA

berria



CodeSyntax



ERABIL KOLEKTIBOA

ERRIGORA

Luis Ezeiza
Eskoriatzako Herri Eskola



EUSKADIKO GGKEen KOORDINAKUNDEA
COORDINADORA de ONGD EUSKADI





garabide
erabari
2020

943 25 03 97

688 63 24 33

garabide@garabide.eus
www.garabide.eus

f /Garabide.eus

t @garabide

v /Garabide

y /Garabide Elkartea

@ @garabideelkartea